EXISTITZEN DEN DOKUMENTAZIOA BERRIKUSTEKO, PROIEKTU BERRIAK “EPLAN” FORMATUAN SORTZEKO ETA LOIOLAKO ARAZTEGIKO ESKEMA ELEKTRIKOAK EGUNERATZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Donostia, 2021eko martxoa

EXISTITZEN DEN DOKUMENTAZIOA BERRIKUSTEKO, PROIEKTU BERRIAK “EPLAN” FORMATUAN SORTZEKO ETA LOIOLAKO ARAZTEGIKO ESKEMA ELEKTRIKOAK EGUNERATZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Aurkibidea

Orrialdea

1. Aurrekariak 1
2. Kontratuaren xedea..... 1
3. Lizitazioan aurreikusten diren instalazioak..... 3
4. Entrega-modua 3
5. Entrega-epea eta bermea..... 4
6. Segurtasuna eta osasuna.....4

1 Eranskina 5

EXISTITZEN DEN DOKUMENTAZIOA BERRIKUSTEKO, PROIEKTU BERRIAK “EPLAN” FORMATUAN SORTZEKO ETA LOIOLAKO ARAZTEGIKO ESKEMA ELEKTRIKOAK EGUNERATZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Aurrekariak

Loiolako araztegia modu mailakatuan jarri zen martxan 2005. urteko amaiera eta 2006. urteko erdialdean. Martxan jartzeko prozesuan zenbait hornitzailek hartu zuten parte; hain zuzen ere, instalazio eta koadro elektrikoak abian jartzerakoan bost hornitzaile izan ziren.

Hornitzaile b
akoitzak bere diseinu-irizpidea zuen, eta obraren amaieran entregatu ziren eskema elektrikoak euren artean ezberdinak dira, haiek ulertzea zailago eginez. Horri gehitu behar zaio instalazioaren dokumentazioaren zatikatzea, proiektu ezberdinetan estuki erlazionatua eta haietan islatu gabe daudenak.

Horren ondorioz, mantentze-lanetan zaila izaten da zirkuituen trazabilitatea eta aldaketak modu efikaz batean planifikatzea. Gai kritikoa da, araztegiaren funtzionamendu zuzena arriskuan jarri dezaketen intzidentziak ekiditeko. Egoerak okerrera egin du urteen poderioz, zeren instalazioa martxan dago eta enpresa ezberdinek aldaketa ugari egin dituzte, eta hauek ez dituzte proiektu eguneratuak eta editagarriak izan aldaketa horiek islatzeko.

Prozesuaren helburua da, dokumentazio elektrikoaren digitalizazioa homogeneizatu eta etorkizunean egingo diren lanentzat diseinu elektriko-estandarra izateko irizpide zorrotzak zehaztea.

Horretarako, lizitazioaren xedea da, formatu digitalean euskarri dokumental bat sortzea, araztegiaren funtzionamendu zuzenean inplikatuta daudenentzat kontsulta eta kudeaketa erraztuko duena.

2. Kontratuaren objektua

Kontratuaren helburua ondorengo puntuek osatzen dute:

- Egungo dokumentazioa aztertu: agiri honen 3. atalean zehazten diren instalazioei lotutako dokumentuak. Horrek ez du baztertzen exekuzio-prozesuan dokumentu edo bertsio berriak identifika daitezkeenik. Gorabehera horiek agiri honen 3. atalean zerrendatutako instalazioetara mugatzen badira eta editatu aurretik jakinarazten badira, Esleipendunak bere gain hartu beharko ditu.

- Datuak hartzea instalazioan: egiaztatuko da, gutxienez, egungo proiektuetan jasotzen diren gailuak existitzen direla eta intzidentzien berri emango da.

- EPLAN software-arekin eskema-proiektu berriak sortu, aurrez AUSAk onartuta dituen diseinu eta egituraketa irizpideak jarraituz: Abiapuntu gisa hartuko dira agiri honen 1 Eranskinean azaltzen diren egituraketa-irizpideak. Lohien digestiorako egin

den proiektu pilotua lizitatzaileentzat eskuragarri egongo da. Oinarrizko proiektua Esleipendunari entregatuko zaio.

- Berrikuspen-prozesuetan sortzen diren zuzenketak txertatu: Lehen bertsioa editatu ondoren, AUSAk berrikuspen-prozesu bat hasiko du. Berrikuspen-prozesua errepikatua izan daiteke, lehen berrikuspenaren ondoren sortzen diren proiektuen bertsioa azterturik AUSAk horrela erabakiko balu. Berrikuspen-prozesua egiteko epea gehienez 6 hilabetekoa izango da.

- Proiektuen garapena.

Oinarrizko proiektuan aipatzen diren irizpideak aldatuak izan daitezke AUSAren aldetik, lan hauek garatzen diren bitartean, eta Esleipenduna gorabehera horietara egokituko da lan guztietan, hasita daudenetan ere, beti ere AUSAk jakinarazten baditu lana editatu aurretik:

- Esleipenduna irizpide horietatik desbideratuko balitz, aurrez jakinarazi beharko du eta AUSAk onartu.

- Esleipendunak edizio-lanei ekin aurretik, abian dituen lanen irizpide-proposamena eta egituraketa zehatzaren proposamena aurkeztuko ditu, hala nola lanen irismena eta xehetasunak, AUSAk balidatu beharko dituelarik.

-
- Proiektuek jasoko dituzte gutxienez eskemen irudikapen multipolarra eta monopolarra, eta armairuen irudikapen bat. Armairuen eraikitzaileak egiaztatuak eta zuzenduak izango dira, haien benetako kokapena irudikatuz.

- Gailu guztiek erlazio zuzena izango dute irudikapen ezberdinetan proiektuaren nabegagarritasuna eta trazabilitatea bermatzeko.

Lehen entregaren berrikuspen-prozesuak amaitzen direnean, Esleipendunak 18 hilabeteko jarraipen-aldia beteko du, kontratuaren berme-epearekin bat egingo duena. Epealdi horretan Esleipendunak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- Komunikazio bide eraginkor bat eduki AUSAk izendatutako pertsonekin.

- Prozesu honetan identifikatutako zuzenketak txertatu, proiektuen bertsio berriak aldiro entregatuz, baldintzen agiri honetako 4. atalean deskribatzen den formatuan.

- Elkarrizketa egonkor bat finkatu, eta horretarako Esleipendunak proiektu bakoitzarentzat arduradun bat izendatuko du. Pertsona horrek izan dezaken edozein gorabehera gutxienez 15 egunetan jakinaraziko du.

- Prozesua amaitzen denean aldaketak jasan dituzten zati inprimatuak ordeztuak izango dira.

- Aldaketak egingo dira gehienez 10 egun balioduneko epean, AUSAk eskaera egiten duenetik.

- Kontzeptu horretatik kanpora geratzen dira agiri honen 3. atalean aurreikusten ez den handitzeak, erreformak edo instalazio zatiak.

Lanak hasten direnetik izendatuko dituzte bi aldeek lanen solaskideak eta arduradunak.

3. Egungo lizitazioan aurreikusten diren instalazioak

Hauek dira:

- **Tentsio ertaina eta behe-tentsioaren banaketa-sistema:** araztegiko sarrerako Tentsio Ertainaren hargunetik Behe-Tentsioko banaketa-koadro eta Kogenerazioko transformadoreetaraino, biak barne.

- **Biologikoa:**
  - CCM
  - PLC
  - Turbokonpresoreak
  - Polipack: Polielektrolitoaren dosifikazioa

- **Dekantazioa:**
  - CCM
  - PLC

- **Dekantazio desodorizazioa:**
  - CCM/PLC
  - Eolage
  - Ekipo sobrepresorea

- **Birzirkulazioko baheketa:**
  - CCM
  - PLC
  - Biltegiko deposituen ponpak PAX-25
  - Loditzetik digestoreetara ponpatzea
  - Birzirkulazioko ponpatzea
  - Birzirkulazioko burdin sareak
  - Produktu kimikoen depositoen berritzea

Atal honetan adierazitako ordena jarraituz garatuko dira lanak.

4. Entrega-modua

Proiektuak entregatuko dira ondorengo euskarrietan: PDF, EPLAN, zw1 eta 2.9 bertsioan, eta haien edizioan aipatzen diren datu eta artxibo guztiak jasoko dituzte.

Entregatuko dira baita ere:

- AUSArekin adostutako proiektuen zatien dosier inprimatua eta enkoadernatua.

- Proiektuaren zati independenteak PDFen inprimatuak, dosierretan aldaketak egiteko.

5. Entrega eta berme epea

Agiri honen 3. Atalean deskribatzen diren dokumentuen lehen entrega kontratua sinatzen denetik gehienez 6 hilabetera egingo da, eta honi gehienez 6 hilabeteko berrikuspen-prozesua gehitzeko aukera dago.

Kontratuaren berme-epea 18 hilabetekoa izango da, AUSAk dokumentuen berrikuspenari adostasuna ematen dionetik kontatzen hasita.

6. Segurtasun eta osasuna

Esleipendunaren ardurakoa izango da bere langileek eta azpikontratatuek (langile autonomoak barne) horniketa egiterakoan, kontratua sinatu zenean edo haiek garatzerakoan Lan Arriskuen Prebentzioari buruz indarrean dauden xedapenak betetzea, hala nola kontratazio-organoaren xedapen bereziak, baldintza hauetan, agiri osagarrietan eta gainontzeko barne-araudiak.

Orokorrean, Esleipendunak parte hartuko du segurtasun gaietarako egiten diren bilera, bisita eta/edo ikuskapenetan, eta kontratuak irauten duen bitartean Prebentzio-Zerbitzuaren eskura izango du baldintza hauetan eskatzen diren agiri guztiak.

Segurtasun eta Osasunari eta Lan Arriskuen Prebentzioari dagokionean, lanak modu egokian egiteko egin behar diren gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira, eta horrek ez dio inolako eskubiderik emango.

1 ERANSKINA: AUSA-REN PROIEKTUAREN EGITURA-IRIZPIDEAK ETA GAILUEN NOMENKLATURA

Gailuen izenak honela osatuta daude:

Egitura-alderdiak:

Egitura-alderdiak osatuko dira: hizkiz eta zenbakiz osatutako definizio bat eta nahi denean ikusi ahal izango den deskribapena:

Adibidez: +AE1 (Armairu elektrikoa 1)

Proposatzen diren egitura-alderdiak IEC/ISO 81346 arauetan oinarritzen dira eta hauek dira:

- **[+]** Lekuak definitzeko, batez ere inguratzaileak dituzten egiturak (koadroak, kutxak, aginte-mahaiak). Gailuen kokapen fisikoa identifikatzen lagunduko du, eta mahuken konexioaren jatorria eta helmuga.

- **[=]** Funtzioak definitzeko, gailuak duen funtzioa identifikatzen lagunduko du, dena dela haren kokapena. Adibidez, CCM batean =DCF612B (*Dosificadora de cloruro férrico*) funtzioaren aginte- eta indar-zirkuituek landako eta kuadroko elementuak ditu baian **[=]** ikurra dute.

- **[&]** Proiektu baten barruan dokumentu baten mota definitzeko: Nazioartean aplikatzen den kode bat dago (IEC 61355); adibidez, &EFS (Eskema elektrikoak). Egitura-identifikatzaile honek ez du eraginik gailuetan, eta beste identifikatzaileak erabili gabe proiektua ordenatzen lagunduko du.

IME primarioa eta sekundarioa:

[-] ikurraren ondoren dagoen guztia kontuan hartzen da eta honela banatzen da:

- (hasierako zifra) (hizki identifikatzailea) (kontadorea) (azpikontadorea)

Adibidea: -11M3.1

Hizki identifikatzaileak adierazten du gailuaren talde funtzionala zein den. Adibidez: M (motorra), Q (babes-elementuak), X (konexio elementuak), S (sentsoreak eta pultsadoreak), etab.

Bada baita ere IME sekundarioa, primarioaren elementu berberak ditu eta haren menpe dago. Elementuak elkartzeko aukera ematen du egitura konplikatu gabe.

Adibidea: Botonera bateko pultsadorea: -BT1-S1.

Irizpide orokorrak:

- Ahal den neurrian ez erabili hasierako zifra.
- Elementuen izendapena ez da egongo erasana proiektuan duen kokapenagatik (orrialdea, zutabea…)

- IME primario eta sekundarioaren elementuek ez dituzte beteko egitura-funtzioak. Arau orokor gisa, gutxienez **[=]** ikurra edo **[+]** ikurra erabiltzea gomendatzen da. Adibidez:

    - Tentsioen banaketa-gailuak edo armairuko zerbitzu osagarrien gailuek saihestu dezakete **[=]** ikurra baina ez **[+]** ikurra.
    - Landako elementuek saihestu dezakete **[+]** ikurra baina komeni da **[=]** ikurra erabiltzea.
- Egitura-alderdiak sortzeko IEC/ISO 31346 arauak jarraituko dira, aurrez AUSArekin adostuak egongo direnak. Hiru hizki eta bi zenbaki gainditzen dituzten identifikatzaileak saihestuko dira.